

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak abeltzain nafarren inbertsioen zorra ordaintzeko diru-laguntza emango du

*300.000 euro bideratuko ditu dagoeneko eman diren maileguren eta kreditu berrien baldintzak hobetzeko*

Lunes, 18 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak 300.000 euro emango dituela erabaki du gaur, Foru Erkidegoko abeltzainek haien ustategietako inbertsioen zorrak ordaintzeko diru-laguntza gisa.

Aplikatu beharreko neurrien artean, kredituak lortzeko behar den bermea ordaintzeko diru-laguntza dago. Bermea eskatutako kopuruaren % 1,5erainokoa izan daiteke. Nafarroako Gobernuak, horrez gain, bi urtean interesen 3 puntu finantzatuko ditu. Hau da, abeltzain bati % 4ko interesa duen kreditu bat ematen badiote, lehen bi urteetan interesen % 1 baino ez du ordaindu beharko. Gainerakoa Foru Gobernuak hartuko du bere gain.

Bigarrenik, Nafarroan izan ezik beste autonomia erkidegoetan egin izan den bezala, dagoeneko emandako kredituak bere horretan utziko dira: abeltzainek haien ustategietan hobetzeko planetarako kredituak jasotzen dituztenean, Foru Gobernuak 2 urtetako gabealdia finantzatu du. Hau da, abeltzainek maileguaren ordainketa bere horretan utziko dute bi urtez, krisialdian aktibo gehiago eduki ahal izateko.

### Sektorearentzako laguntzak

Laguntza horiek Nafarroako Gobernuak abeltzainen sektoreko krisiari aurre egiteko abian jarri zituen neurrietako batzuk dira. Abeltzainen krisia zerealen prezioaren igoerak eta, ondorioz, pentsuen prezioaren igoerak eragin du. Ekoizpen kostuek nabarmen egin dute gora; hala ere, igoera horrek ez ditu aldatu abeltzainen produktuen prezioak. Abeltzainen ustategi batzuk (esnetarako eta haragitarako behi-azienda batez ere) ordainketen etenaldian sartu dira.

Horiez gain, Foru Gobernuak hauek jarri zituen abian: PFEZ moduluen deskontuak abeltzaintzat, animalien gorpuak ustategietatik kentzeko diru-laguntzak Bruselak baimentzen dueneraino, % 85eraino igotzea, animaliak eramateko garraio gidaren tasak bere horretan uztea, behi ume-hazleengatik laguntzak azkar ordaintzea abeltzainaren likidazioari mesede egiteko. Azken neurri hori, hala ere, Nekazaritza Bermeko Espainiako Funtsak (FEGA) igorri behar dituen zerrenden arabera da. Halaber, esnekien sektoreko ekoizleen erakundeak sustatuko dira (ekoizleek salmenta prezioak erakunde gisa eta ez bakarka negoziatzea da kontua). Hala, bitartekarien aurrean duten maila indartzen da.